

noaua



KALTEAK ERREPIKATU DIRA MUNALURRAKO IKASGELAN ETA UDALAK LOKALA BEHIN-BEHINEAN IXTEA ERABAKI DU

Udalak gogorarazi nahi du halako gertaerek ez dutela lekurik Usurbilen / **05. or.**

ARGAZKIA: UDALA



ZIORTZA

**Ziortza Gazte
Elkartea: "Urteko
saioekin hastera
goaz"** / 08




NOAUA

**Giro bizia
San Praixku
jaietako lehen
asteburuan** / 11-13



NOAUA

**Aizpurua
Autobusak-ek
bost ibilgailu berri
aurkeztu ditu** / 14



NOAUA

**'Jone, batzuetan'
filma igande honetan
Sutegin ikusgai,
NOAUA!ren eskutik** / 22



USURBIL
OPTIKA

2x1

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN
LENTE PAREA
DOAN!

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com



G15 USURBIL
HIGIEZINA | INMOBILIARIA

ONENA AURREZ AURRE!

**SALEROSKETA
& ALOKAIRUAK**

688 739 733

g15usurbil.eus info@g15usurbil.eus

Etxebeste Kalea, 15 Usurbil, Gipuzkoa



BIZI EUSKARAZKO ZINEA NOAUAREKIN

JONE, BATZUETAN

URRIAK 12, igandea 18:00tan SUTEGIKO AUDITORIOAN

SARRERAK: aldez aurretik salgai 6€tan usurbilkultura.eus plataforman.
Bazkideek 4€tan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan

noaUA  Usurbilgo Udala

Sagardotarako sagarren ezagutza sakontzen

Egunotan, Alkartasuna kooperatiban ikusgai duzue sagardotarako baliatzen diren sagarren erakusketa. "Sagar hau zein barietatekoa den ba al dakizu?", hortxe Baserritarren Kooperatibak proposaturiko jolasa. Egunotan, bere Atalluko dendan sagardotarako baliaturiko sagarrak ikusgai jarri ditu; Txalaka, Saltxipi, Errezila, Manttoni, Mozolua, Berde Garratza, Goi-koetxe, Moko... "Sagardotarako erabiltzen ditugun 115 barietateren arteko aukeraketa" izango duzue ikusgai.

Bada bat, ordea, izenik ez duena eta horretara animatzen ditu aditu eta arituak, barietatea



"Sagardotarako erabiltzen ditugun 115 barietateren arteko aukeraketa" erakusketa Alkartasuna kooperatiban topatuko duzue.

zehaztera. Ez hori soilik. Etxean sagardotarako sagarra baliatzen duenak erakusketara ekartzeko deia egin dute antolatzaileek,

barietatea identifikatua izan edo ez. Hartara, bilduma hau osatzen joan, eta izenik gabeko barietateak denen artean zehazten

joateko ahalegina bultzatu nahi dute. Urriaren 13tik aurrera, Sutegira lekuz aldatuko dute erakusketa.

Garbigune mugikorra, Txokoaldera

Atalluko Garbigunera joan ezin dutenei zerbitzu hau gerturatzeko helburu du Udalaren garbigune mugikorrak. Zubietatik Txokoaldera lekuz aldatuko dute urriaren 8an eta bertan izango dute hilaren 15era arte.

Urriaren 12an, errefusa biltzeko eguna izango da.

Nekazal ibilgailuek IAT azterketa egiteko aukera

Urriaren 17an ostirala, traktoreek eta nekazal ibilgailuek IAT azterketa egiteko aukera izango dute Alkartasuna kooperatibaren aurrean dagoen aparkalekuan. Txanda hartzeko, ITEVELESA Irun enpresara deitu behar da: 650874017 / 943626300. Zerbitzua eskudirutan ordaindu beharko da.

1955ean jaioetakoak urriaren 18an elkartuko dira

"Urtero bezala, aurten ere 1955. urtean jaioak urriaren 18an biltzeko aukera izango dugu, egun pasa eginez Baztango lurretatik egunaz gozatuz".

Izen-ematea urriaren 10era-ko osatu behar da. Telefonoz, whatsapppe: 675 006 445 (Maribi) 615 760 458 (Patxi). Emaillez: 1955usurbil@gmail.com

1959. urtekoak urriaren 25ean batuko dira

Kintoen garaia izan ohi da udazkena. Batzuk ospatu dute honez gero, beste batzuk datozen egunetan elkartuko dira. 1959. urtekoak urriaren 25ean batuko dira Artzabalen.

Interesa duenak aurretik deitu behar du ondoko telefono zenbakira: 659139073 (Eli).



Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Kudeatzailea:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio Batzordea:
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Ane Ibargoinen.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzalea:
Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 3.050 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia, Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



LUIS ARANALDE

Alemaniako elizaren lezioa

2020an, II. Mundu Gerraren amaieraren 75. urtea zela eta, Alemaniako gotzainek txosten bat zabaldu zuten alemaniar hierarkiak nazien garaian izan zuen rolaz. Gotzain alemaniarren benetako "mea culpa" bat izan zen testu hura beren aurrerakoek izan zuten jarrera koldarragatik, izan ere, ezzuten ia batere erreakzionatu atzeritarren, judutarren, homosexualen eta ijitoen aurka naziek egin zituzten diskriminazio eta eraso krimen eskandalagarri haien aurrean.

Muturreko eskuinaren gorakadaz kezkatuta, alemaniar apezpikuek ez dute bestaldera begiratu, ez dira ezta ere neutraltasun faltsu batean babes-tu. 1984an Bakearen Nobel Saria eman zioten Desmond Tutú apezpikuari. Lan itzela egin zuen Hego Afrikako apartheid sistemaren kontra. Bere esanetan, "injustizia egoe-ra baten aurrean neutrala bazara, jakin ezazu zapaltzailearen alderdia aukeratu duzula".

Horregatik, Alemaniako Tre-veriseko bikario nagusiak behin eta berriro errepikatu zuen: "Eskuin muturreko alderdiak ezin dira jarduera politikorako gune izan guretzat, kristauontzat". Argi eta garbi adierazten du Alemaniako Elizak eskuin mutur xenofobo eta arrazistarekiko lotura guztiak hausteko duen erabaki irmoa. Baina ez ziren hor gelditu, eta urrats bat



"Alderdi horietako afiliazioa ez da bateragarria Elizako lanarekin".

harago joan ziren. Fededunei zein fededegabeei adierazi zieten alderdi horietako afiliazioa ez zela bateragarria Elizako lanarekin. Stefan Hesse, Hamburgoko gotzainak esan zuen, eskuin muturrekoen arrakasta ikusiaz: "ezin gara besoak gurutzatuta gelditu, partidu batek demokrazia apurtzen duen bitartean".

Jesus Matinez Godo bilbotar teologoa da. Antiguako Pastoral Barrutian bi hitzaldi eman zizkigun duela urte batzuk. Ez da denbora asko irakurri nio-

**"ESKUIN
MUTURREKO
ALDERDIK EZIN
DIRA JARDUERA
POLITIKORAKO
GUNE IZAN
GURETZAT,
KRISTAUONTZAT"**

la honako hau beste teologo baten hitzak aipatuz: "Zoritarrez, estatu espainolean eskuin muturreko eta kristau mugimendu integristen artean akordio berri bat sortzen ari da, non gorroto diskurtsoak zabaltzen ari diren eta hori ebanjelioarekin kontraesangarbian dago".

Jesus Martinez apaizak Espainiako gotzainei eskatzen die Voxeko militanteak botatzeko Elizako erakundeetatik Alemaniako gotzainen jarrera imitatuz. Baina, Espainiako Elizaren sektore batzuk ez dute disimulatzen talde hauekiko duten sinpatia, haiekin flirtean ibiltzen direnak ere badira. Batzuen ustez, Elizaren jarra hain argia eta zehatza balitz, Voxek ez ote lituzke boto gehiago lortuko? Hain zuzen ere, horixe gertatu zen Alemaniako azken hauteskundeetan gotzainen jarreraren ostean. Ezer berririk ez eguzkipean.

Voxek eta eskuin indarrek inmigrazioa satanizatu egiten dute eta kristau batek ezin du arrazakeria hau onartu. Gertakizun honen aurrean, kristau askoren ustez Espainiako gotzainek ausartagoak izan behar lukete eta ez hain "epelak" ebanjelioarekin koherenteak izan nahi badute. Zergatik gure apezpikuek ez dute alemaniar beren gotzain kideen etsenplua jarraitzen, Voxengandik al-denduz eta beren militanteak Elizako ardura pastoral guztietatik botatz? Oraintxe dute aukera ederra.

Ezohiko osoko bilkura

2025. urteko azken txanpara heltzen goazen honetan, urte berriko udal aurrekontuak onartu aurretik, zerga, tasa eta prezio publikoak arautzen dituzten ordenantza fiskalak hasieraz bozkatzeko ezohiko osoko bilkuran elkartuko da udalbatza, asteazkenean, urriaren 8an, 18:00etan.

"Goazen kalera", Aginagan

"Goazen Kalera, Usurbil" as-tearteroko paseo osasuntsuen dinamikaren hurrengo geltokia Aginaga izango da urriaren 14an, 10:30-12:00 artean. Bertako frontoitik abiatuko da. Herritar orok parte har dezake. Amaieran, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleen ha-maiketakoa banatuko dute.

KzGunea, goizez

Ikastaro hauek iragarri dituzte datozen egunetarako. Informazio gehiago: 943 023 684.
• Urriak 15-17, 09:00-11:00 "WhatsApp. Bat-bateko mezularitza zure smartphonean".
• Urriak 20-31, 09:00-11:00 "Ofimatika tresnak-LibreOffice".

Eskulanen tailerra

Gantxilloa, bolilloa... lantzeko taldea osatua dute. Etumeta AEKeuskaltegiak duen egoitzan biltzen dira, astelehen goize-ro, 9:30-11:30 artean. Urtritik ekainera izango dira bertan.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
• eguneko menua • asteburuko menua
• oilasko erreak, ogitarakoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

ANDATZA TABERNA
EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARAKOAK
8:00-23:00 Igandetik - Ostegunera
8:00-00:00 Ostiraletik - Larunbatera
Kaleazar Auzoa 12, 0B, USURBIL Tel 943 73 20 27

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASAK • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825



Hamasei lagunentzako ikasgela DYAK Munalurran duen egoitzan aurkitzen da.



Ezezagunek, astelehenez kaltetu zituzten ikasgelako paretak.

Aurten, hirugarrenez kaltetu dute Munalurrako ikasgela

Berriz ere kalteak izan dira Munalurran duen ikasgelan. Ondorioz, Usurbilgo Udalak behin-behinean ixtea erabaki eta erabiltzaileekin bilera deitu du asteazken honetarako, urriaren 8rako.

ARITZ LASARTE
Usurbilgo Udalaren bidez, halako irudiak heltzen zaizkigun hirugarren aldia da. Kaltetu egin dute berriz, Munalurran kokaturiko ikasgela. Duela urtebete, 2024ko urriaren 15ean iraunkorki zabaltzea erabaki zuen Usurbilgo Udalak DYAK Munalurran duen ekipamenduko hamasei lagunentzako ikasgela. Ordura arte, urtean garai jakinetan irekitzen zuten.

2025a hasi zenetik hirugarren aldiz kaltetu dute instalakuntza hori. Antza, kalteak urriaren 6an izan ziren, astelehen arratsaldean, Usurbilgo Udaletik jakinarazi dutenez. Ondorioz, astearte goizean bertan, lokala behin-behinean itxi zen, "eta bestelako neurriak ere hartzekoa da Udala". Neurri horiek erabiltzaileekin baloratzekoak dira, "asteazken

honetarako (hilak 8) deitutako bileran: arratsaldeko 19:00etan, ikasgelan bertan".

"Halako gertaerek ez dute lekurik Usurbilen"

Gogoan izan, aipatu moduan, urte hasieran izandako kalteen harira, "baloratu zen giltza sistema jartzeko aukera, eta Udalak lanketa horri ekin bazion ere, erabiltzaileengan konfiantza izan eta bigarren aukera bat ematea lehenetsi zen, ordura arteko funtzionamenduari eutsiz: alegia, sar-

"GILTZA BIDEZKO SISTEMA JARTZEA AZTERTU ZEN, BAINA AUKERA BERRI BAT EMAN ZIEN UDALAK URTE HASIERAN"

bidea librea izatea, inolako baldintzarik gabe".

Kalteak berriz izan direla ikusita, bestelako neurriak hartu eta horiek erabiltzaileekin baloratzeko bilera deitu dute asteazken honetarako (urriaren 8rako). "Kalteak berriz sortu direla ikusita, Udalak gogorarazi nahi du halako gertaerek ez dutela lekurik Usurbilen: udal-ekipamenduak egoki eta errespetuz erabiltzeko eskatzen da, herritar guztien onurarako baliabide publikoak diren heinean".

"UDAL-EKIPAMENDUAK HERRITAR GUZTIEN ONURARAKO BALIABIDE PUBLIKOAK DIRA"



Kalteak ez dira arinak.

lazko urritik, iraunkorki zabalik

Urriaren 15ean urtea beteko du, herritarrek Udalarik helarazitako eskaeren harira, ikasgela hau iraunkorki, astelehenetik igandera, urte osoan, 8:00-22:00 artean irekitzen hasi zirenetik. "Ikasteko leku egoki baten beharraz ohartarazita, Usurbilgo udalak Munalurran duen udal-ekipamendua egokitu zuen 2024an, hasieran azterketa garaietarako, eta, azkenik, modu iraunkorrean. Hilabete luzetan ez zen arazorik izan, baina urte hasieran kalte materialak izan ziren, hango ate, pareta eta bestelako baliabideetan".



"Elkarri Irakurriz" solasaldiei lekua egingo die aurtengo Booktegi jaialdiak ere, sei sortzailearen eskutik.

"Poz-pozik ospatzen dugu jaialdi hau Usurbilen"

Euskarazko literatura guztion esku doan jartzen diharduen Booktegi egitasmoak jai egingo du laugarren urtez Usurbilen. Hamarkada batera heltzeaz den proiektuaz eta urriko azken asteburuko eskaintzaz mintzatu zaigu haren sustatzaile eta herrikide Aritz Branton lerrootan.

ARITZ LASARTE

400 liburu, 600.000 bisita, 300.000 ale baino gehiago deskargatuak... Hamarkada bateko ibilbidea osatzear den Booktegi egitasmoa nola errotzen joan den agerian uzten duten datuetako batzuk dira. Euskarazko literatura guztion esku, euskaraz eta doan jartzen duen proiektua da booktegi.eus webgunea.

Egitasmoa bera, 10. urtemuga betetzeko atarian den arren, proiektu horren bueltan osaturiko kultur elkartea 2022an sortu zuten Usurbilen eta urte hartan hasi ziren jaialdiok antolatzen udalerrri honetan bertan. Ordutik, edizio "guztiak Usurbilen egin ditugu eta aurtengoa ere hala izango da. Elkarre haur usurbildarra denez,

lekurik egokiena da. Gainera, espazio oso onak ditu; Zumarteko ganbara eta Sutegiko antzokia. Poz-pozik ospatzen dugu jaialdi hau Usurbilen", bere sustatzaile Aritz Branton nabarmendu duenez.

Eskertza jaialdia

Bultzatzaileek zer ospatua badutenez, horretara doaz urriaren 24an eta 25ean; Book-

tegi jaialdia antolatu dute Usurbilen laugarren urtez jarraian. "Jaialdia hori guztia ospatzeko motiboa da. Eskertzeko bai sortzaileei, baita irakurleei ere ematen diguten arnasa, bizitza", Brantonek hedabide honi adierazi dionez.

Aurtengoari dagokionean, zenbait berrikuntza dakartza Maitane Perez antzezlea anfitrioi izango duen edizioak;

"ELKARTE HAU USURBILDARRA DENEZ, LEKURIK EGOKIENA DA. GAINERA, ESPAZIO OSO ONAK DITU"

"JAIALDIA ESKERTZEKO DA BAI SORTZAILEEI, BAITA IRAKURLEEI ERE, EMATEN DIGUTEN BIZITZA"

batetik, iraupena, bi egunekoa izango da. Zikloa abiarazteko, bestalde, "Rupertorioa" antolatuko dute. Ruper Ordorikak idatzitako abesti bat hautatu eta nahieran Sutegiko ikus-entzuleei eskaintzeko aukera izango du herritar orok. Lehenbizi, info@booktegi.eus helbidera idatzi behar da lehenik, urriaren 17a baino lehen. Antolakuntzak abesten zerrenda eskaini eta bat hautatu beharko du parte hartzaileak. Kanta hau errezitatu, abestu musikarekin edo gabe, edota hausnarketa edota bizipen bat partekatu ahaliko da kultur-etxeko auditoriora joandakoekin. "Ruperrek berak idatzitako abesten omenaldia izango da", Brantonek aurreratu duenez. Jada, gutxienez 25 lagunek bat egin dute ekimenarekin. Gehienak errezitaldiak izango dira, baina abestuko duenik ere izango da, gogoetarik eskainiko duenik ere bai.

Biharamunean, egunpasa borobila prestatu dute. Hasteko, "Elkarri Irakurriz" saio bikoitza, urtero moduan bi gaien bueltan: giltzak eta katea dira aurtengorako hautaturikoak. Bertan parte hartuko duten idazleek idatzitako ipuinak aitzakia gisa hartuta, solasaldi librean ariko dira sei sortzaile Zumarteko ganbaran, goiz partean. Arratsaldean, Sutegiko auditorioan segiko du Booktegi jaialdiak, Oihan Vegaren "Euskañolitis" euskararen erabileraz hausnartuko duen bakarriketarekin. Berarekin batera usurbildarrak partaide izango ditu ordu horietan. Hasteko, Udarregi ikastolakoak "Booktubers" saioarekin. "Ikastolak urtero gai bat ekartzen du eta hori oso pozgarria da", Brantonen esanetan. Ameba taldekoek borobilduko dute arratsaldea haien ibilbideko kanten emanaldiarekin. Amaierara adi egoteko deia egin dute antolatzaileek, izan ere, sorpresatxoren bat egon daiteke Sute-gi atarian.



Itxaro Bordak "Elkari irakurriz" solasaldian hartuko du parte, Zumarte Musika Eskolan.

Udarregiko Booktuberren liburu gustukoenak

Aurten, bi egunetan eta ekintza berriekin, bueltan dator Usurbilen laugarrenez ospatuko den Booktegi jaialdia. Euskarazko literatura guztion esku jartzea xede duen egitasmoaren zikloa urriko azken astebururako antolatu dute.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO
Laugarren urtez jarraian Booktegi jaialdia Usurbilen ospatuko da. Urriaren 24an eta 25ean izango da. Ostiralean Rupert Ordorikaren letrei omenaldi omenaldia egingo diote; igandean, aldiz, bi solasaldi eta hiru emanaldi egingo dira.

Hainbat gonbidatu izango ditu Booktegiaren jaialdiak besteak beste, Inigo Astiz euskal poeta eta kazetaria, Miren Agur Meabe idazlea, Ane Labaka bertsolari, idazle eta genero ikuspegiko ikertzailea, Itxaro Borda idazlea, Oihan Vega musikaria eta Ameba

taldea izango dira. Azken lau urteetan bezala, Udarregi ikastolako ikasleek Booktegi jardunaldian parte hartuko dute. Ikasleek ekintza bat prestatu dute, "Booktuberrak" deiturikoa.

Booktuberrak

Aurten *youtuber*-rek egiten dutena eta liburuak aurkezteko bidea bilatu dute Udarregiko ikasleek. Urtero bezala, jaialdian parte hartuko dute, eta ikasleek gustuko duten liburuaren bideo aurkezpena egingo dute. Horretarako, ikasleak egoera desberdinetan

jarriko dira errepikakorra izan ez dadin. "Taldea batek, adibidez, detektibe lanak egingo ditu liburu bat aurkitzeko, eta aurkitzean, liburu hori zergatik aukeratu duten, zergatik gomendatzen duten irakurtzea eta zer gustatu zaien azalduko dute", Ana Sagardia Udarregi

UDARREGIKO IKASLEEK HAINBAT LIBURUREN AURKEZPENAK EGINGO DITUZTE

ikastolako irakasleak azaldu duenez.

Liburuen aurkezpen bideoak ikasleek grabatuko dituzte, eta jaialdiko bigarren egunean bideo horiek Sutegin proiektatuko dira. Aurretik bideoetan parte hartu duten ikasleek aurkezpen txiki bat egingo dute.

Booktegi jaialdia

Urriak 24, ostirala

19:00 Rupertorioa: "Ruper Ordorikak berak idatzi dituen letren omenaldia: musika, errezitaldia, hausnarketak, kontakizunak...".

Urriak 25, larunbata

Zumarte Musika Eskolan:

- 10:00 "Elkarri Irakurriz" bi solasaldi: -Inigo Astiz, Irati Zubia, Miren Agur Meabe. -Ane Labaka, Garazi Albizua, Itxaro Borda.

Sutegin:

- 16:00 Udarregi ikastolako Booktubers.
- 17:30 Oihan Vega, "Euskañolitis".
- 19:00 Ameba.

Informazio gehiago:
booktegi.eus

Antolatzailea:
Booktegi elkarte.

Laguntzaileak:
Usurbilgo Udala,
NOAUA! K.E.

Artzi
Patrikatzatzailea
• bazkariak EGUNERO
• afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 • © 688 690 361

txirriStra
TABERNA
• PLATER KONBINATUAK
• BOKATAK • PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO



Ziortzako eskaintza 12 eta 18 urte arteko gazteei zuzendua dago.

"Ziortza gazte elkarte martxan da"

Gaztetxoaren guraso edo tutorearen batek galdetegi bat osatu behar du, Ziortzaren ekintzetan parte-hartu ahal izan dezaten.

"Aurreko ikasturtea izugarria izan zen: My got txapelketa, Ziortxex eta Escape room-a, kabalkada eta herri Inauteriak, elkarbizitza nahiz kanpaldia... Eta ahaztu gabe, 40. urteurrena! Aurten ere, Ziortza Gazte Elkarteko kideok lanean hasi gara eta, horrekin batera, abian jarriko ditugu urteko saioak".

Iazkoa ahaztezina izan zen eta aurtengo ikasturteari begira dira dagoeneko Ziortzako arduradunak. NOAUA!ra bidali duten idatzi baten bidez jakinarazi dutenez, "saio hauek hilabetearen behin gauzatu ohi ditugu eta 12-18 urte bitarteko Usurbilgo gazteei zuzendurik egoten dira".

Saio hauen helburua Usurbilgo gazteei ikasturtearen zehar "aisialdi euskaldun eta hezitzaile bat eskaintzea da. Horretarako, dinamika, jolas edota lanketa ezberdinak eramaten ditugu aurrera", Ziortzatik aurrerratu dutenez. "Ez hori bakarrik, saio hauek batzuk ospakizun ezberdinekin harremanak egoten dira (San Tomas, gabonak, Inauteriak...) eta, tarteka, Usurbilgo herrira eta

bertako herritarrengana ere zuzentzen gara".

Saio hauen inguruko informazioa Ziortzaren sare sozialetatik zabaldu ohi dute:

- Instagrametik, @ziortzage helbidean.
- Facebooketik, Ziortza Gazte Elkartea profiletik.
- Posta-elektronikotik ere bada informazioa jasotzeko aukera (Ziortzaren mezuak e-postaz jasotzeko ezinbestekoa izango da beheko estekan azaltzen den galdetegia betetzea).
- Whasappetik (mezu bat bidali behar da ziortzage@gmail.com helbidera whatsapp taldean sartzeko).
- NOAUA!-ren bidez.

Galdetegia bete

Ikasturte berrirako antolatutuzten ekintzetan parte-hartu ahal izateko, gaztearen guraso edo tutorearen batek ondorengo estekako galdetegia bete behar du: <https://forms.gle/Sp9TRXsxAS8EGwRi7> (argazkiko QR kodea baliatu bestela). "Animatu! Zuen zain egongo gara". Hortxe Ziortzak Usurbilgo gaztetxoekin luzatu dien gonbidapena.

'Heriotzaren pedagogia' bizipen tailerra antolatu dute Santuenean

Santuenea auzo elkarteak ekintza ugari iragarri ditu datozen asteetarako.

Urriak 12 eta azaroak 16

- 11:00-13:00 Heriotzaren pedagogia bizipen tailerra Manex Beristainen eskutik.
- Prezioak: Santuenea Kultur Elkarteko bazkideek 30 euro pagatu behar dituzte; bazkide ez direnek, 35 euro.

Urriak 17, ostirala

- 21:00 Bertso afaria Santueneako Ibai-Ondo Elkartean.
- Bertsolariak: Nerea Elustondo, Sustrai Colina eta Eli Pagola.
- Gai-emailea: Onintza Gartzia.
- Menua: txistorra, bakailaoa saltsan, saiheskia, gazta, irasagarra, intxaurrak, kafea, kopa.
- Prezioa: 35 euro. Txartelak Esnaola janari-dendan jarri dituzte salgai.

Urriak 24/azaroak 7

- 17:30-19:30 Sendabelar koa-dernoa Leire Lazkanoren eskutik, Santueneako frontoi ondoko lokalean
- Prezioak: Santuenea K.E.ko bazkideek 30 euro, bazkide ez direnek 35 euro.
- Oharra: plaza mugatuak.
- Izen-ematea: 621 095 644 / santueneake@gmail.com
- Antolatzailea: Santuenea KE.

Tailer gehiago Santuenean

Tai-chi: Urrik aurrera, astelehenetan, 17:00-18:00 artean. 675006445 (Maribi).

Aeroyoga: Urrik aurrera. 615715991 (Leire).

Joskintza: Ostiraletan, 17:00-19:00 artean. 695774951 (Mari Carmen).

'Hurbilduz' proiektuaren aurkezpena

Saioa urriaren 16rako antolatu du Usurbilgo Udalak arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Udaberriaz geroztik lantzen ari diren proiektuaren baitan, bi ekimen bideratu dituzte, udalerrira hau herri zaintzaileagoa izateko bidean: "bakardade ez hautatuaren inguruan herritar guztiei erantzuteko aukera eman zitzaizen galdetegia eta Aginagan udaz geroztik lantzen ari den auzo-zaintza proiektua. Bi-biak Zabalduz kooperatibarekin ari da lantzen udala".

Bakardade ez hautatuaz herritarrek duten pertzepzioa jasotzeko 36 eragile elkarrizketatu eta 109 herritarren erantzunak jaso zituzten galdetegi bidez. Udaletik zehaztu dutenez, "20 urte ditu gazteenak eta 90, zaharrenak". Hilaren 16ko aurkezpenean, "datu horiek zein galdetegi

eta elkarrizketetatik ateratako ondorioak ezagutaraziko dira".

Aginagako egitasmoa, Europako funtsekin finantzatua

Aginagako auzo-zaintza proiektuari dagokionean, bestalde, "65 urtetik gora izan eta bakardade egoera hauskorrean egon daitezkeen aginagarren zaintza hobetu eta komunitatearekin lotzea du helburu. Kasu horretan, 45 pertsona elkarrizketatu dira. Aginagako egitasmoa Transis Lab mugaz gaindiko proiektuaren barruan dago, zeina Interreg Poctefa Europako programak babestu eta Europako funtsekin finantzaturik dagoen. Sei esperientzia pilotu jarriko dira abian lurralde ezberdinetan, Pirinio Atlantiko eta Garaietan, Nafarroan eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoan; Aginagako Eusko Jaurlaritzak sustatu du".



Emakumeon Etxeko martxa aztertuko dute urriaren 18ko jardunaldian.

'Emakumeon Topaketa', elkar ezagutzan sakontzeko

Urriaren 18an batuko dira Kalezarko Pelaioenean kokaturiko Emakumeon Etxean.

Urriaren 18ko hitzorduak "herriko emakumeentzako topaketa izan nahi du, elkar ezagutzan sakontu eta sareak josteko. Aurten, Emakumeon Etxeko martxa izango da gai nagusia, besteak beste, egin diren ekimenak errepasatu eta talde sustatzailearen azalpenak eta bizipenak ezagutzeko".

Emakumeon Etxeko urriko ekintzak

Urriak 18, larunbata
 • 10:00-12:30 Emakumeon Topaketa: Gosaria. Ondoren, etxeko martxaren balorazioa, egin diren ekimen ezberdinen argazkiekin.
 -Taldea sustatzailearen azalpenak eta bizipenak.
 -Udazkeneko programazioaren aurkezpena.
 -Udaberriko eskaintzarako proposamenak jasotzea.
 -Idoia Torregaraireren umorea izango dugu lagun.

Urriak 23, osteguna
 • 18:00 "Mi parto robado" liburuaren inguruko solasaldia.

- Zehaztasunak: "Nahia Alkorta Elezgarai idatzitako "Mi parto robado" liburuaren aurkezpena eta gaiaren inguruko solasaldi musikatua. Egilea bertan izango da, Joana Auzokoa Larrea eta Agurne Alkorta Balbas usurbildarrek lagunduta".
- Izen-ematea: emakumeontxe@usurbil.eus / 943 377 112.
- Antolatzailea: Usurbilgo Emakumeon Etxea.

Egurtzegiko bizi osorako etxebizitzetan izena emateko aukera

Zaintza behar dutenak eta haien zaintzaileak (afektiboak edota profesionalak) elkarrekin bizitzea ahalbidetuko dute Egurtzegiko bizi osorako etxebizitzek. Guztira, gisa horretako sei bizileku ditu Matiak Kalezarko zaintzadun etxebizitzetan auzune berrian. Haiekin lau alokairuan hartuak ditu Udalak Usurbilgo herriarrei eskaintzeko. Interesdunek urriaren 25era arte eman ahal dute izena.

Hiru orduko lanuzteak Palestinaren alde

Hiru orduko lanuzte orokorra deitu dute LAB, CCOO, UGT, ESK, STEILAS, CGT, Etxalde eta HIRU sindikatuak Araban, Bizkaian, Gipuzkoan, urriaren 15ean, "genozidioarekin negoziarik ez. Langileok Palestinarekin!" aldarripean.

Hiru txanda finkatu dituzte
 Lanuzteok bideratzeko hiru txanda finkatu dira hurrengo asteazkenetarako; 03:00etatik 06:00etara, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Goizeko txandaren baitan, 11:00-14:00 artean, manifestazioak antolatu dituzte hiriburuetan; Gipuzkoakoa, Donostian. Eguerdiko 12:30etan abiatuko da Bulebarretik.

Lanuzte eta mobilizazio hauen bidez, "langile klase osoaren elkartasuna" adieraziko zaio palestinar herriari. AEBetako Gobernuaren babesarekin, Israel egiten ari den genozidioa eta gizateriaren aurkako krimenak edota Zisjordanian Palestinako lurraldearen etengabeko kolonizazioa eta horrek "langile palestinarren lan- eta bizi-baldintzetan dituen ondorio larriak" salatuzko ere baliatuko dira deialdiok.


Eskari gehiago ere plazaratu nahi dira lanuzteon bidez. Batetik, "Gazako genozidioaren berehalako amaiera eskatzeko eta okupazioa eta kolonizazioa amaituko dituen eta Palestinako herriak askatasunean bizitzeko eskubidea bermatuko duen konponbide integrala" exijituko da. Bestetik, "patronalari eta instituzioei, bertakoei zein nazioartekoei, Israelekin harreman komertzial oro" etetea eskatuko zaie. "Ezin da genozidio baten kontura negozioa egiten jarraitu", gogorazi dute. "Europar Batasuna-Israel Elkartzeko Hitzarmena osorik" etetea ere eskatuko da.

"Beterri-Buruntza Digitala" ezagutzeko aukera

Beterri-Buruntza Mankomunitateak antolatu du izenburu hori daraman ekitaldia, urriaren 16an, goizeko 9:30ean, Urnietako kiroldegiko bosgarren gelan. "Beterri-Buruntza Digitala" programak ETEen (Enpresa Txiki eta Ertainen) eraldaketa digitala bilatzen du, aholkularitza espezializatuaren bitartez. Azken edizioan, sektore ezberdinetako 6 enpresek hartu zuten parte, eta balorazioa positiboa izan zen, antolatzaileen esanetan. Ondorioz, "enpresa horien esperientziak partekatzeko eta enpresa berriak urratsa ematera animatzeko asmoz" antolatu dute mankomunitateko udalek (Usurbilgoak tartean).

Bake epaile titularra eta ordezkoa hautatzeko deialdia

Eskaerak udal erregistroan aurkezteko epealdia zabalik dago. "Interesdunek zinpeko aitorpena aurkeztu beharko dute, non adieraziko duten deialdi honetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela, eta legeak xedatutako ezgaitasun eta bateraezintasunik ez dutela. Halaber, interesdunek hautaketa prozesuari begira egoki iritzitako merituak aurkeztu beharko dituzte, eta baita curriculum vitae ere. Baloratu ahal izango diren merituak dira bizilekua, curriculum eta euskararen ezagutza". Hautagaitzak aurkezteko epealdia igarota, eskaera horien artean hautatu beharko ditu udalbatzak bake epaile titularra eta haren ordezkoa. Urriaren 3ko GAOn ageri dira xehetasun gehiago.



Zubietakoa bezalako Europako azpiegituren onarpen eta eraikitze lanak geraraztea eskatu dute 156 eragilek.

Erraustegi berriak gerarazteko eskaera

156 talde ekologista eta hondakinen tratamendu jasagarriaren defendatzaile diren eragileek gutuna helarazi diote Europako Batzordeko presidente Ursula von der Leyeni eta Europar Batasuneko ingurumen alorreko estatueta ministroei.

Gutun horren bidez, Europar Batasun osoan erraustegi berriak onartu eta eraikitze aginduak berehala geldiaraztea eskatu diete. Sinatzaileen artean da GuraSOS. Hiru eskaera helarazi dizkiete aipatu agintariei; batetik, Europar Batasun osoan moratoria aplikatzea errauste planta berrien onarpen eta eraikuntza lanei; bigarrenik, erraustegien gaitasuna gutxiagotzen joateko estatuek eta EB-ak estrategiak lantzea; eta, azkenik, hondakinen kudeaketa segurua eta ingurumenarekiko jasagarria eta erresilientea izango den ekonomia zirkularreko azpiegiturretan inbertitzea.

Denek irizten diote, "EBk dagoeneko aurre egin behar diola udal-hondakinak errausteko gehiegizko gaitasunaren krisiari". Horrez gain, aurrei-

kusten dutenez, "Europak egungo birziklatze-helburuak eta hondakinak murrizteko helburuak lortzen dituenean, egungo azpiegiturak etorkizuneko behar guztiak aseko ditu, zalantzarik gabe".

Arrisku klimatikoa

Eragile hauek guztiek gogora ekarri dutenez, hondakinak errausteko sistemak "zuzenean ahultzen ditu EBko eta ekonomia zirkularreko hondaki-

nen prebentzioa, berrerabilpena eta birziklapena. Hondakinen errausketa gero eta arrisku klimatiko handiagotzat hartzen da". Ondorioz, horrek "zaildu egingo luke Europako Itun Berdearen eta Itun Industrial Garbiaren esparruan estatu kideek beren helburu klimatikoak betetzea". Are gehiago, gogorarazi dutenez, "emisioen kontrolean hobe-kuntzak egin diren arren, gero eta frogar gehiago daude hon-

"EB-K AURRE EGIN BEHAR DIO ERRAUSKETAREN GEHIEGIZKO GAITASUNAREN KRISIARI"

"HONDAKINEN ERRAUSKETA GERO ETA ARRISKU KLIMATIKO HANDIAGOTZAT HARTZEN DA"

dakinen errausketa kutsadura larri batekin eta osasunarentzako balizko kalteekin lotzen dutenak. Europa osoan errauskailuetatik gertu dauden komunitateak oso kutsatzaile iraunkor eta toxikoen eraginpean daude, hala nola dioxinak, metal astunak eta PFAS. Horiek lurrean, elikagaietan eta baita giza gorputzean ere aurkitu dira, eta minbiziarekin, dis-funtzio immunitarioarekin eta garapenaren nahasteekin lotzen dira". Halakoak "legedia betetzen duten instalazioetan ere" gertatzen direla adierazi dute.

"Ez zen beharrezkoa"

GuraSOSen esanetan, "gutunaren edukiak erraustegia eraikitzearen aurka bere garaian azaldu genituen oinarriko argudioak gogorarazten dizkigu: Zubietako erraustegia gairak gindimentsionatua zegoen, ez zen beharrezkoa eta osasuna eta ingurumenerako arrisku bat da. Aldi berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak erraustegia eraikuntza horiekin bukatzea zegokion fasean eraiki zuela ikusteko aukera ematen digu, hau da, Europako joeraren kontrako norabidean".

Gogora ekarri dutenez, "Zubietako instalazioek, besteak beste, egiturazko arazo larriak dute, bizentzutan: sortu behar ez lituzkeen lixibiatuak sortzen dituzte, eta, gainera, urak geldiarazteko gai ez da. GHK-k eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sortu dituzten gatazka puntualen sorburuan daude: Arkaitzerrekara eta lur azpiko uretara egindako isurketa kutsakorrek, erakunde arteko gatazkek sortu dituzten lixibiatuen lege kanpoko garrarioak...".

Beste behin, elkarriketarako bidea irekitzea eskatu dio GuraSOSek Gipuzkoako Foru Aldundiari, "ukaezinak diren eta sortzen dituen ingurumen kutsadura eta auzotarren osasun arazo larriek konponbidea bilatzen saiatzeko".



Belaunaldi ezberdinetako aginagarrak elkarrekin lehiatu ziren herri kirolen erakustaldian. Aginaga izan zen txapelduna, noski.

Jai giro bizia, San Praixkuen hasieran

Jai giro bikaina, mugimendua gau eta egun Aginagako festen lehen asteburuan izandako ekintzekin, orrialdeotako irudietan ikus dezakezue. Abiapuntua urriaren 3an izan zuten San Praixkuek, aurtengoan, herri kooperatibari gorazarre eginiko txupinazoarekin.

Egitasmo horren harira, bi urteotako lanketa eta horrek ekarritakoa goraipatu zuten talde eragileko ordezkarien ahotik, festen hasiera ekitaldian. "Aginaga Biziberritzen" ekimenaren bidez hain zuzen, aginagarren kezka eta beharrak identifikatzetik ekin zioten prozesu honi. Herri bizi bat nahi zutela azaleratu zuten, eguneroko erosketetarako denda batekin. Gune estrategikotzat jo zuten Arrate Egoitzaren zerbitzua baita etxebizitza berrien sustapena. Diagnosi hori oinarritzat hartuta, Olatukoop-eko kideen bidelaguntzarekin "gure asmoak errealitate bihurtzeko indarra osatu dugu". Hala eratu dute herri kooperatiba. "Irabazi asmorik gabekoa da, eta helburu nagusia herritarron bizi-kalitatea hobetzea da". Bere

bidez, "Aginagan bizi nahi dugu, eta horretarako beharrezko zerbitzuak martxan jarri eta lanpostuak sortzeko asmoa dugu!".

Arrate Ostatuaren irekiera

39 bazkide ditu egun, eta sarea handitu asmo dute. Etkez etxe bazkidezeko orriak banatu asmo dituzte, bizileku bakoitzean bazkide bat gehiago eskuratzeko asmoz. Horrez gain, prozesu honetan zehar izandako Udalaren bidelaguntza ere nabarmendu zuten. "Apustu garbia egin du Aginagako herritarron etorkizunaren alde". Testuinguru horretan, hitzarmen bat sinatu dute bi aldeok, aurrez, "Eliza Zaharra Elkargunea eta Arrate egoitzaren kudeaketa egokiago bat bermatzeko" Udalak antolatutako proiektuen

lehiaketa irabazi ostean. Hitzarmenaren baitan, "azken hilabeteen Arraten beharrezko egokitze lanak egiten arituda Udala". Iragarri dutenez, "gure asmoa azaroan Arrate Ostatu zabaltzea da". Bertan, "hiru langile arituko dira, haurrentzat zein herriarentzat zabalduko den jantokia, tберна zerbitzua eta denda aurrera eramanez. Hala ere, irekiera formala laster egingo dugu, eta informazio gehiago emango dizuegu!".

"AGINAGAN BEHARREZKO ZERBITZUAK ETA LANPOSTUAK SORTZEKO ASMOA DUGU"

Aginagako jaiak

Urriak 10, ostirala:

Ume eta Gazteen Eguna

10:00 Umeen jolasen hasiera.

13:00 Umeen bazkaria.

16:00 Puzgarriak. Ondoren, eguraldiak laguntzen badu, apar festa.

17:30 Txokolate banaketa eta buruhandiak.

18:00 Erraldoi eta buruhandien irteera, Lauburu konpartsaren eskutik.

19:00 Musikaz girotutako poetea.

21:00 Gazte afaria Atarialde Elkartearen. Izena emateko Instagramera idatzi.

23:00 Txosna irekiera.

23:30 Kontzertu gaua Eliza Zaharrean: Bide Batez, Dj Hildalgo.

Urriak 11, larunbata:

Gaupasa Eguna

12:00 Herri kirol erakustaldia.

18:00 Txosna irekiera.

19:00 Arranopola txaranga.

00:00 Kontzertu gaua frontoian: Mirua, Trikidantz.

03:00 Eliza Zaharrean: Dj Jotatxo.

08:00 Errefus bilketa gaupaseroentzat.

Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.



Aginaga sagardotegikoen hamaiketako ederra dastatu zuten urriaren 4an.



Dantza giro bizian, oilasko biltzaileen irteerarekin bat egin zutenak.



Herri kooperatibari gorazarre eginez abiarazi dituzte aurtengo jaiak.



Jaien hasiera ekitaldira joandakoak, ospakizun betean.



Telazko poltsak diseinatzeko tailerra izan zuten gaztetxoek.



Hereje Fighters taldekoek girotu zuten larunbat arratsaldea Eliza Zaharrean.



Ihesaldi bat baino gehiago eragin dute buruhandiek jaietako lehen asteburuan.



Euskal abestien asmatzaileei hainbat sari banatu zizkieten bingo musikatuan.



Belaunaldien arteko topagunea izaten da oilasko biltzaileen irteera, urteroko talde argazkiak erakusten duen moduan.



28 bikote lehiatu ziren jaietako mus txapelketan.



Maria Angeles eta Joxe Juan, mus txapelketako aurtengo garaileak.



Sokatiran eta herri kiroletan gogotik lehiatu ziren aginarrak.



Ostolazak eta Larrañagak dantza batean jarri zuten Aginaga, jaien hasieran.



Auzolanean prestaturiko jan-edan eskaintza oparoa izan da San Praixkuetan.



Punteria fineko lehiakideak, toka txapelketan.



Aizpurua Autobusak lantegikoek Araetan eginiko ekitaldi amaierako talde argazkia.

Bost ibilgailu efiziente aurkeztu ditu Aizpurua Autobusak lantegiak

Aizpurua Autobusak enpresak erosi berri dituen "Irizar i6 Efficient" bost ibilgailuak aurkeztu zituen urriaren 1ean, Araetako aparkalekuan. Ibilgailuon hobekuntza teknikoez soilik ez, sorkuntzaz nahiz lantegi horren alde ahalegin nekaezinean aritutako sendia omendu zuten.

ARITZ LASARTE

"Berritasuna, jasangarritasuna eta teknologia" edota artea mugimenduan irudikatzen duten autobus berriak ezagutarazi zituzten; ekitaldiko aurkezleak zioen moduan, "Aizpurua Autobusen iragana, oraina eta etorkizuna irudikatzen duen obra polit bat". Hitza harturikoen artean zen Aizpurua Autobusen aliatu aitzindari den Irizar Taldeko zuzendari Imanol Rego.

Segurtasun hobea

Gogora ekarri eta eskertu zuen, mende erdia baino gehiagoko bi aldeen hartumana. Aizpurua Autobusak-en bidez eginiko apustuaren garrantzia goraipatu zuen, asmamena-

rena, Irizarren baloreak diren erosotasuna, segurtasuna eta efizientzia transmititzeko. Ekitaldian aurkezturikoak, Irizar Taldeko zuzendariaren esanetan, orain arteko "ibilgailu efizienteenak dira, %30ean hobetu dute koefiziente aerodinamikoa" eta segurtasuna ere hobetzen lagundu die, "ezagunak ziren

"IBILGAILU EFIZIENTEENAK DIRA, %30EAN HOBETU DUTE KOEFIZIENTE AERODINAMIKOA"

adarrak (atzerako ispiluak)" galduta.

Nabarmendu zuen, Aizpurua Autobusak lantegiak "erosotasun handiagoko, diseinu hobeagoko eta jasangarriagoak" diren ibilgailuak eskaintzen segitzea duela helburutzat. Ildo horretan, pozarren eta esker oneko agertu zen Rego, "Aizpurua, beste behin, gudan

"AIZPURUA 60 URTEZ EGITEN ARI DENA, EZ DA SOILIK BIDAIAZTEA; ESPERIENTZIAK DIRA, EMOZIOAK"

konfiatzeagatik". Bere burua "Mike Belindo" gisa aurkezten duen David López Amézqueta margolari nafarrarena da autobus berriotako batean islatu zuen izen hori daraman sorkuntza lana. Artelanaren egileak berak ere hitza hartu zuen aurkezpen ekitaldian bertan. Gogora ekarri eta Aizpurua sendiari aitortu nahi izan zionez, "Aizpurua 60 urtez egiten ari dena, ez da soilik bidaiatzea; esperientziak dira, bihotzak, emozioak". Horixe da hain zuzen bera- rentzat, "mugitzen zaituen bihotza". Bere esanetan, Aizpuruatarrak; "sei anai-arreba, bakoitza bihotz bat da". Esker oneko agertu zen proiektu hau egitea ahalbideturiko Aizpuruatarrak nahiz gainerako bi- delagunei.

"Konplize behar zaituztegu"

Aizpurua familiak 1967az geroztik eginiko lanaren merezitako aitortza egin zen baita. Aizpurua Autobusak lantegi-ko egungo zuzendari eta bertan lanean diharduen familiako hirugarren belaunaldiko kide Aintzane Aizpurua aurrean zituen senideei merezitako eskertza helarazi zien. "Aiton-amonak hasi ziren; aitona gidatzen, amona ezkutu- tuko lanetan. Sei senide, zaz- pigarrena falta. Bakoitza sar- tu zen enpresan ondoena zekiena egiten". Laburbilduz, "bigarren belaunaldi mundia- la izan dut, a ze maisu-mais- trak, isilpean aritu direnak. Eskerrik asko bihotz-bihot- tzez!".

Egun, 35 langile ditu Aizpu- rua Autobusak lantegiak, ber- rikuntzei eta "zuek denok bezero izanik, zuen eskakizu- nei" erantzuteko prest. Argi adierazi zuenez, "zuek zarete garrantzitsuenak. Denok kon- plize behar zaituztegu, ze hi- tzez hitz, kilometroz kilometro, etorkizuna berreraikitzea gure esku dago". Amaieran atera- tako familia argazkia jende- tsuarekin bukatu zuten eki- taldi berezia.



"Kirola berdina da, jokatzeko era eta pilotak dira desberdinak", aitortu du Miriam Arrillagak. ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

"Telebistan ateratzen garelako jendeak uste du profesionalak garela"

MIRIAM ARRILLAGA PILOTARIA

Miriam Arrillaga (Aginaga, 2000) txikitatik dabil pilotan jolasten, nahiz eta denbora batez utzi egin behar izan zuen mutilen aurka bakarrik lehiatzen zelako. Orain neska gehiago daudela aitortu du.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO
Nola ikusten duzu emakumeen kirola?

Nik uste jendea gehiago ari dela animatzen, eta pilotaren kasuan, geroz eta neska gehiago datoz atzetik. Nik garai batean eskuz jolasteari utzi izan behar nion neskarik ez zegoelako, eta palara pasa nintzen. Gaur egun, neskek haien artean jolasten dute. Beste kirolekin ere geroz eta ikusgarriagoak direla iruditzen zait, geroz eta jende eta kirol ezberdin gehiago, eta pozgarria iruditzen zait.

Zer uste duzu izan dela gorakada hori ekarri duena?

Lehenago batzuetan emakumeak kirola egitea gaizki ikusi

sita zegoen. Jendea animatu da kirola egitera, eta disfrutatzen dute kirola egiten. Norberak egin du bere bidea eta haien artean harremantzen lortu da.

Arazorik izan duzu kirolean emakumea izategatik?

Bai, mutilen kontra jokatzeko nuenean jendearen iruzkinak entzuten nituen, adibidez, "neska baten aurka galdu du-

"NESKA GAZTEAK ENTRENATZEN DITUT ETA ILUSIOA EGITEN DIT"

zu" gutxiago nintzela pentsatuz edo ez nuela balio pilotan ibiltzeko.

Horrelakoak entzun nituen iraganean eta tristea da. Gaur egun ez ditut aditzen.

Zer erantzun zenuke emakumezkoen kirola eta gizonezkoen desberdina dela esaten dutenei?

Kirola berdina da, jokatzeko era da desberdina eta pilotak

"EZ DUT USTE NI PROFESIONALIZATERA IRITSIKO NAIZENIK"

ere desberdinak dira. Kirola pilota da. Nik ere ikusten dut desberdina dela mutilek maila altuagoa dutelako. Baina gu gora egiten saiatzen ari gara, ahal den maila hoberena lortzen eta gure aldetik ahal den gehiena jartzen.

Profesionalizatzen ari zarete?

Telebistak asko egiten du, eta telebistan ateratzearekin jendeak uste du profesionalak garela, eta ni, behintzat, ez naiz profesionala. Profesional izatea pilotatik bizitzea da niretzat, eta ni ez naiz pilotatik bizi. Profesionalizazioaren bidean goaz, baina oraindik asko gelditzen da. Bai guk bai gizarteak lan egiten jarraitu behar dugu, eta ez dut uste ni profesional izatera iritsiko naizenik.

Arlo pertsonalean, zer moduz doa denboraldia?

Ni azken asteetan kolpe batzuk jasota nator. Plazandreak txapelketan bi partidak galdu nituen. Iaz txapelketa irabazi nuen eta aurten txanponaren beste aldea egokitu zait. Alde horretatik ez oso ondo, baina nahiko txukun joan da nahiz eta hobetu daitekeen.

Zer esango zenuke eskubaloian hasi berri den neska gazte bati?

Nik animatu egingo nuke. Berak ikus dezan zer den pilota, ikusteko berak disfrutatzen duen ala ez. Nik neska gazte batzuk entrenatzen ditut eta ilusioa egiten dit. Gainera, bidea eginda dutela ikusten dut eta pilota utzi gabe bidea egin dezaketela. Nik asko animatzen ditut.

Eta zer esango zenuke txikitako Miriami?

Nik ikaragarri disfrutatu dut eskola aurretik, eskola eta gero eta gauez. Orain beste maila batean nago eta desberdin ikusten dut. Baina disfrutatzen jarraitzeko esango nioke, eta disfrutatzen ez duen momentua iristean beste kirolen bat probatzeko esango nioke.



EAJren esanetan, "desoreka handiak izan dira herriko erdigunearen eta auzoen artean, bai eta landa-eremuetan ere".

Berdeguneen zaintza hobetzeko eskaera

Gaia mozio bidez aurkeztu zuen EAJ-k irailaren 25eko udalbatzaren osoko bilkuran. PSE-ren udal ordezkariak aldeko botoa eman zuen, EHBilduren udal ordezkariak abstenitu ziren.

Mozioak "gobernu-taldeari eskatzen dio berrikusi eta eguneratu ditzala parke, berdegune, bidezidor eta oinezkoentzako pasealekuetako lorezaintza, inausketa eta mantentze zerbitzuaren baldintzak, dela baliabide propioekin, dela kanpora ateratako zerbitzuen bidez, honako hauek gehituz: lanetan maiztasun handiagoa, udalerriko eremu periferikoetan intentsitate handiagoa eta plan-gintza, kontrol eta jarraipen lanen hobekuntza". Horrekin batera, udalbatzari eskatzen dio onar dezala hurrengo urteko udal aurrekontuetan, zereginari aurre egiteko diru partida eta "konpromiso hori urte anitzekoa izan dadila".

EAJ-ren esanetan, egun, alor horretan egiten diren lanek ez diete "erantzun egokia ematen Usurbilgo benetako beharrei, ezta herritarren eskakizunei ere. Desoreka handiak izan dira herriko erdigunearen eta auzoen

artearen, bai eta landa-eremuetan ere". Ondorioz, "belarrak eta sasiek gehiegizko tamaina hartu dute, mugikortasuna eta oinezkoen pasabidea zaildiz, hiri-altzarien erabilera oztopatuz eta espazio jakin batzuetan osasungarritasun-arazoak sortuz (zikinkeria, intsektu edo bestelako animalien agerpena)". Horien guztien zainketa egokia, "funtsezkoa da gure udalerriko bizi-kalitatea, segurtasuna eta osasungarritasuna bermatzeko".

Batzordeetarako deia

Mozioko edukiaren berri emanda, adierazpenen txanda heldu zen. Harridura agertu zuten EHBildutik. "Gai hauek lantzeko lantaldeak, batzordeak daude, gure bulegoak eskuragarri". Lurralde batzordean aurrez adierazitakoa gogorarazi zuen Ainhoa Arrozpide zinegotziak; kudeaketa txostenean halakorik adierazten duen "aldagai berezirik" ez dagoela. Espero-

tako makinaria aurreikusi baino beranduago heldu dela, eta horrek bere eragina izango zuela baina "egoera larrira iritsi garen" zantzurik ez dutela udal gobernu taldean. Arrozpidek azaldu zuenez, 30-40 egunean behin mozten dute belarra, 20-30 egunean behin maiatza-iraila artean. "Aldaketa klimatikoaren eraginez, neguko geraketa hori geroz eta murriztagoa da leku guztietan". Belarra azkarago hazten da.

Udal langileekin zerbitzuaz hausnarketa prozesu betean

"ZAINKETA EGOKIA FUNTSEZKOA DA BIZI-KALITATEA, SEGURTASUNA ETA OSASUNGARRITASUNA BERMATZEKO"

EAJ-PNV

dira. Brigadarekin zerbitzua hobetzeko pausoak ematen ari direla berri eman zuen. Bestalde, udal aurrekontuak lantzeko garaia da orain. "Aztertu behar ko dira beharrak. Abiatzeaz gauden lanketa bat orain baldintzatzea ez zaigu egokia iruditzen", udal gobernu taldearen esanetan. Mozioaren berri emateko NOAA!ra igorritako argazkiaz galdetu zioten EAJ-ri. Udal gobernu taldeak bildutako datuen arabera, Donostiako Udalarri dagokio argazkiko eremua zaintzea, hiriburu aldeko Zubietan baitago.

PSE-ren bozeramaile Petri Romerok EAJ-ren mozioa babestu zuen, "zerbitzu oro berraztertu eta hobetu daitekeelako". Udal aurrekontuak lantzeko garai hau aukera ontzat jo zuen, "zerbitzu horren partida handitu behar den edo ez aztertzeke".

"Usurbil osoan"

EAJ-tik Ivan Iriondok hartu zuen hitza. Herritarrengandik jasotako kexak tarteko "gardentasun osoz" aurkeztu zutela mozioa ziurtatu zuen. Argazkia Donostia aldeko Zubietakoa balitz ere, "Usurbil osoan izan da arazoa uda honetan. Uste dugu, beste maiztasun edo modu batekin artatu behar ko direla arazo hauek". Gaineratu zuenez baita, "gure betebeharra da oposizio eraikitzailea egin eta ditugun tresnen bidez gaiak hona ekartzea".

Eraginkorragoa litzateke EHBildutik erantzun ziotenez, herritarren kexak erregistro bidez aurkeztea eta mozioa udalbatza aretora ekarri aurretik, udal teknikariengana nahiz udal gobernu taldearengana jotzea. Udal batzordeetan gai hau lantzeraz gonbidatu zuen EAJ udal gobernu taldeak. "Mozioak aurkeztu eta hedabideetara helarazteak beste asmo bat du. Zoritxarrez, 2027ko udal hauteskundeak bitarte, hala ibiliko garela uste dut", adierazi zuen Arrozpidek. Oposizio gisa dagokien lana berretsi zuten EAJ-tik.



Lehen aldiz mutilen zein nesken taldeek 'photo session' bana izango dute.

Elkarlanean arituko dira E.M. Studio eta Usurbil KE taldea

Usurbil K.E. -k elkarlanerako akordioa adostu du Ekhi Manterola herritar irudigile gaztearekin.

"Ekhi Manterola herritar gazteak zuzentzen duen E.M. Studiorekin akordio batera iritsi gara, aurrerantzean bere zerbitzuak eskaintzeko Usurbil Kirol Elkarteari", berri eman dute eskubalo taldeen bilgune-
tik.

"Eskubaloiak emozioz beteriko irudiak utz ditzake"

Gaineratu dutenez, "elkarlana hasia dagoen arren, horren islada da lehen aldiz klubean senior mutilen zein nesken taldeetako partaideek photo session bana izango dutela".

Manterolak Usurbil K.E. -ren bidez jakinarazi duenez, "ohore handia da niretzat Usurbil Kirol Elkarteari argazkilaritza arloan elkarlan hau izatea. Eskubaloiak emozioz betetako irudiak utz ditzake eta horiek lortzen aletxo bat jarri nahi dut".

Eskubalo taldeen bilgune-
tik nabarmendu dutenez, "Ekhi oso argazkilari fin eta prestua da. Argazki mota desberdinak egiteko gai da, oso polibalen-
tea da, eta bere lanak klub bezala hazten jarraitzen la-
gunduko digu".

Irisasi BTT Hotzak Akabatzen proban izena emateko aukera

2026ko urtarrilaren 25ean egingo den ekimenerako izen-ematea ireki dute kronoak.com atarian. Proba egunean ezingo da izena eman. Antolatzaileek ohartarazi dutenez, urtero hel-
tzen dira gehienezko 500 izen-emateetara. Ondorioz, "ez itxaron azken unerarte", galdegina diete parte hartzeko

gogoz direnei. Badaezpada, itxarote-zerrenda bat egokitu-
ko dute, azken orduan, izena emandakoren batek uko egiten badio parte hartzeari.

Maillota opari

Adi, izena ematen duten lehenengo 400 lehiakideek maillota bat jasoko dute opari gisa.

Maddi Olaetxea Usabiaga, garaile

Asteasun jokaturako Euskal Herriko Mendi Duetloir Zirkuitoko lehen jardunaldia irabazi zuen irailaren 27an Maddi Olaetxea Usabiagak.

Ehunetik gora partaidea bildu zituen Anttine elkarteak antolaturiko ekimenak. Emakumezkoen artean, Maddi Olaetxea Usabiaga nagusitu zen. 1.51.26, hortxe proba amaitzeko behar izan zuen denbora. 8 kilometro egin



Asteasuko proban nagusitu zen. AIURRI

behar zituzten korrika eta beste 16,2 kilometro bizikleta gainean.

Kiroldegiko behin-behineko eskaintza

Abuztu amaierako sutea tarte-
teko, kaltetutako kiroldegiko igerilekua berriz martxan jarri arte, urriaren 20an abiaraziko dituzten ikastaroen behin-behineko eskaintza plazaratu du Oiardok. Batetik, igeriketara zuzenduriko indarra eta teknika lantzeko entrenamendu funtzionalak antolatu dituzte. Bigarrenik, "multigym" deritzona, hau da, "aquagym" jarduerak, aretoan egingo dena. Hirugarrenik, spinning eta urteko saioen ordeko aretoko jarduerak uztartuko dituzten saio konbinatuak ere antolatu dituzte. Urriaren 10a baino lehen, eman dezakezue izena saio horietan guztietan. Informazio gehiago, Oiarde kiroldegiko harreraren.

'Norgehiagoka' erakusketa ikusteko azken asteburua

Eskola kiroleko eta kirol munda-
duko jarrera desegokiez eta lehiakortasun goiztiarraz hausnartzeko erakusketa irekia du Zirimarak Sutegin. Arlo ezberdinetako aurpegi ezagunek sortutako idatziek nahiz Zirimarako kideek sortutako ikus-entzunezkoak murgilaraziko gaitu hausnarketa ariketa horretan.

"Norgehiagoka" izeneko erakusketa bisitatzeko azken egunak dituzue honako hauek:

Irekiera egunak

Urriak 10, 11, 12.

Ordutegia: Ostiraletan eta larunbatetan: 17:00-20:00 artean. Igandeetan: 12:00-14:00 artean.

Buruntzaldeko Ibilbideen XVI. Eguna, urriaren 19an

Eskualdeko landa-ingurunea eta txokook lotzeko bideak ezagutzeko aukera eskaintzen duen egun hau urriaren 19rako antolatu dute eskualdeko udalek, 8:00-14:00 artean. Ohi bezala, gero, nor bere herrira itzultzeko autobus zerbitzua izango da. Xehetasun gehiago, hurrengo aldizkarian.

Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoirako izen-ematea

Urriaren 26an ospatuko den 28. Lasarte-Oria Bai Herri Krosa Zubietatik igaroko da aurtien ere. Ostadar Saiarre Kirol Taldeak antolaturiko ekimenerako izen-emateko epealdia zabalik dute parte hartu nahi dutenentzat kronoak.com atarian. 10 km-ko krosa egingo da eta 5 km-ko ipar martxa.

Mihise taldeak urriaren 17an aurkeztuko du bere disko berria, Sutegin

Oholtza gainera bueltan datoz sorkuntza lan berriarekin. Izan ere, "Ahaldata" izena du Mihise taldeak plazaratzear duen bigarren diskoa. Lehenengoa, "Kronik@" izeneko 2020an kaleratu zuten Beñat Urteagak (baxua, ahotsa), Antton Aranburuk (gitarra, ahotsa) eta Mikel Olsagastik (bateria). Hotzikara edota Izeberg taldeetatik datoz hiru musikariak.



Mihise hirukotea. ARGAZKIA: IBAI ARRIETA

Aurrerapen kanta

Taldearen esanetan, badakartzak berrikuntzak bigarren diskoak instrumentuen aldetik, baina haien abesti bilduma entzunda, Mihise entzun daiteke argi haien hitz eta doinueta, jatorriari uko egin gabe. Aurrerapen moduan, "Dena eman" izeneko kanta entzungai jarri dute sarean. Gainerako edukia, xehetasunak

urriaren 17rako antolatu duten ekitaldian ezagutuko dituzue. Izan ere, aurkezpen kontzertua antolatu dute Sutegin. Lagunarte giroan partekatu nahi dute, urteotan Haraneko lokalean lantzen joandakoa.

Sarrerak egunean bertan jarriko dira salgai

- Urriak 17 ostirala.
- 19:00etan, Sutegin.
- Sarrera: egunean bertan, 5 eurotan.



Argazkian, aurtengo ikasleak. Izen-ematea zabalik dago oraindik.

Udarregiko bertso-eskola martxan da

Udarregiko bertso-eskolako lagunak astelehenean elkartu ziren lehen aldiz. Batzuk iazko ikasturtekoak dira, eta beste batzuk aurtengo batu dira. Ateak zabalik daude oraindik, beraz interesa duenak edo probatu nahi duenak, horretarako aukera du oraindik. Astelehen eguerditan biltzen dira Udarregiko eraikin gorrian:

12:30ean LHkoak; eta 13:30ean DBHkoak.

LHko ikasleen aldeko apustua

Lierni Rekondo bertsolari lasartearrak gidatuko du beste behin ere bertso-eskola. LHko gaztetxoaren aldeko apustua egin da aurtengo, "eta ematen du jarraipena bermatuta dugu".

Izan Bai taldearen sorkuntza prozesua ikusgai

"Dena Galdu Baina Lehen" diskoaren prozesua ikusgai jarri du sarean Izan Bai musika talde berriak. Zenbait aurrerapen kantu eta bideo klip plazaratu zituzten lehenbizirik iragan udazkenean zehar. Urtarrila amaieran plazaratu zuten lehen diskoa. Otsailaren 22an eskaini zuten estreinako kontzertua Aginagako Eliza Zaharrean. Orain, ordura arte eginiko ibilbidea ikusgai jartzea erabaki du Izan Bai musika talde berriak.

Ezkutukoa, agerian

"Dena Galdu Baina Lehen" izeneko lehen diskoaren sorkuntza prozesua iruditzen biltu eta dokumental moduan, ibilbide hori nolakoa izan zen erakusgai jarri du. Ia ordu-erdiko ikus-entzunezkoa taldeak Youtuben duen kanalean ikusi



Ixak Arruti, estudioan.

si eta entzun dezakezue; nagusiki, grabazio estudio barruko bizitza, sorkuntza prozesuaren emaitza ezkutuan geratzen dena sarritan.

Zumaiako Ozen estudioan grabatu zuten lana, Jurgi Taboadaren gidaritzapean. Bederatzi abestiko lanaren egilea honako talde hau: Ixak Arruti (abeslaria eta gitarra), Martin Larrañaga (bateria), Ibon Aginaga (gitarra) eta Urtzi Olaziregi (baxua).

Txalaparta Festako bazkarirako sarrerak aldeztu aurretik eskuratu behar dira

Musika instrumentu honetaz era desberdinetan gozatu eta bizitzeko moduko hirugarren edizioa prestatu dute Jexux Artze K.E.-k eta 650 Usurbil Bizi herri egitasmoak elkarlanean urriaren 18rako.

Osatu duten egunpasa horren egitaraua doakizue segidan. Adi, bazkaritarako txartelak hilaen 12a baino lehen eskuratu beharko dituzue.

Txalaparta Festa: Urriak 18, larunbata

• 11:45 Herri erromeria eta txorizo eta sagardo banaketa, Mikel Laboa plazan (euria bada, Askatasuna plazan): adar deia, albokariak, txalaparta irekia eta ikasleen emantaldia.

• 14:00 Ibilaldia albokariekin, kaxkotik hasi eta Saizar sagardotegiraino.

• 14:30 Bazkaria Saizar sagardotegian. Bazkaria bitartean, txalaparta irekia. Bazkarirako txartelak urriaren 12ra arte egongo dira salgai usurbil-kultura.eus plataforman 46 euroren truke. Haurrentzako menua usurbiltxalaparta@gmail.com helbidera idatzita erreserbatu beharko da. Egunean bertan ordaindu beharko da horren prezioa, 21 euro.

• 18:30 Malkoak TX eta Talka taldeen kontzertua, herrian zehar, Artzabalgo plazatik hasita.

• 20:00 Juan Mari Beltran lau-kotearen kontzertua, frontoian.

• Antolatzaileak: Jexux Artze Kultur Elkarte eta 650 Usurbil Bizi.

Urriaren 13an itxiko da Mintzalagun-en izena emateko epea

Euskaraz egiteko ohitura dutenak eta ikasten ari direnak elkartzen dira, astean ordubetez, "euskaraz hitz egiteko".

Ikasturte berri honetarako ere abian da Mintzalagun egitas-moa. Urriaren 13ra arte zabalik duzue izena emateko aukera. Xedea, euskarazko mintzapraktikan aritzea da, astero ordubetez, talde bakoitzak adostutako hitzorduaren bueltan. Izan ere, kideen zaletasunak, adina, bizitokia eta ordutegiak aintzat hartuta osatzen dira taldeak. "Euskaraz egiteko ohitura duten lagunak eta mintzapraktika egin nahi dutenak elkartzen ditu astero ordubetez euskaraz hitz egiteko". Saio hori egin liteke kafe baten bueltan, paseo bat emanez...

Mintzalagun antolatzen da "euskara gehiagotan erabiltzeko, euskararen ezagutza handitzeko, euskarazko harremanak egiteko, euskararen alde egiteko... Mila arrazoi daude Mintzalaguna izateko!", jakinarazi dute antolatzaileek.

Parte hartzeko betebeharrak eskatzen da; "euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila izan behar da". Izena emateko taupamugimendua. eus/mintzapraktika web orrialdera jo beharko duzue.

Euskara ikastaroak

Usurbilgo Udalak antolatutako bi euskara ikastaro abiatzeaz dituzte. Izen-ematea oraindik zabalik dute:

Etorri berrientzako hastapen ikastaroa

- Hasiera: urriak 14.
- Noiz: astearteetan, 18:15-19:45 artean.
- Tokia: Potxoenea.



Astero ordubetez euskaraz aritzeko boluntarioak behar dira. BAGERA

- Helburua: "Etorri berriak euskararen mundura gerturatzeko, oinarritzako esamoldeak ezagut ditzaten".

Jubilatuentzako oinarritzako euskara ikastaroa

- Hasiera: urriak 16.
- Noiz: ostegunetan, 18:00-19:30 artean.
- Tokia: Artzabal.
- Helburua: "ikastaroan, oinarritzako hiztegia, esamoldeak, arauak... eta, oro har, egunerokotasunerako makuluak ikasiko dituzte".

Izen-ematea, doan:
euskara@usurbil.eus
943 37 19 99.

"BETEBEHARRAK BAKARRA: EUSKARAZ KOMUNIKATZEKO GUTXIENEN MAILA IZATEA"

Zinemaldi Alternatiboa: "Herri mugimenduaren indarra erakutsi dugu"

Igaro dira Zinemaldi egunak Donostian, baita paraleloki eskaini diren proiektio alternatiboak ere. Zinemaldi Alternatiboaren hamazazpigarren edizioari lekua egin zaio aurten ere, herri eragile hainbaten eskutik. Ekimen honen bidez, Donostiako Zinemaldian ematen ez dituzten pelikulak izaten dira ikusgai, eta alfonbra gorrietatik eta fokoetatik kanpo dauden guneetan proiektatzen dituzte.

Zinemaldi Alternatiboa igarota, antolatzaileek asteotako balantzea plazaratu dute. "Inoizko ediziorik indartsuena izan da", nabarmendu dute, hamazazpigarren edizioa ahalbideratu dutenei eta parte har-

tzaileei eskerrak helaraztearekin batera, tartean, Zubietako proiektioa eskainitako Gurdi Ertz kolektiboari nahiz Kaxkapeko emanaldira joandakoei. "Eskerrik asko edizio hau posible egin duzuen eragile eta laguntzaile guztiei, herri mugimenduaren indarra erakutsi dugu elkarrekin".

Honako edizio hau ere palestinar herriari elkartasuna adierazteko baliatu nahi izan dute proiektio guztietan, baita kartelaren edota bat eginitako mobilizazioen bidez ere. "Gure bihotza eta ekintzak beti egongo dira haiekin, genozidio jasanezin hau eta kolonizazioa amaitu arte", jakinarazi dute antolatzaileek.

Ekintza gehiago iragarri dituzte udal liburutegian

Hona hemen, Sutegi udal liburutegitik antolaturiko hurrengo ekintzen berri:

Urriak 22, asteazkena

- 19:00 Gaztelarazko solasaldia. Ohi bezala, Ana Merinok zuzenduko du irakurle taldeko saioa. Honakoan, Lucia Berlinen "Manual para mujeres de la limpieza" ipuin liburuko lau ale hartuko dituzte ahotan: "Lavandería Ángel", "Macadán", "Manual para mujeres de la limpieza" eta "Punto de vista".

Urriak 27, astelehena

- 17:30 Irati Goikoetxearen "Nor" liburuari buruzko irakurketa-solasaldia 11 urtetik gorakoentzat udal liburutegian.

- Oharra: saioetarako liburuen aleak eskuragarri dituzue liburutegian.
- Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.

Kalakan eta Berçaitz Anaia Aginagan

"Ahotsez" izeneko emanaldia eskainiko dute urriaren 19an, arratsaldeko 18:00etan, Aginagako Eliza Zaharrean. "Proiektu berria kantuari oro har eta euskal kantugintzari bereziki, maitasun adierazpena da"; zehazkiago esanda, "4 artistek familiako mahai handien inguruan entzun, ikasi eta kantatzen duten kantuekiko maitasun hori partekatzen dute gurekin". Sarrerak 12 eurotan eskura daitezke usurbilkultura.eus plataforman.

"Elgarrekin, musikak identitatearen eta memoria kolektiboaren ibilgailu gisa duen indarra goraiatzeko dute, belar-naldiak batuz kantu horien oihartzunen bidez. Hemen, ez dabakarrik kantatzea. AHOTSEZ funtsezkoan murgiltzea da: ahotza, bibrazioa eta emozioen transmisioa. Gertuko bat edo gehiagorengandik jaso zuten kultura honenganako maitasunaren adierazpena ere bada".



Haurrentzat bideratutako yoga saioak izan arren, familiako gainontzeko kideek ere parte hartu ahal izango dute. Argazkia Usurbilgo jaietakoa da. Bihurrik askari bat antolatu zueneko, Artzabalgo plazan.

Umeentzako yoga saioak egingo dituzte Bihurri ludotekan

Saioetan parte hartzeko izen eman behar da, eta horretarako Bihurri Ludotekaren helbide elektronikora (bihurriludoteka@gmail.com) idatzi beharko da urriaren 10a baino lehen. Bestetik, ate irekien eguna antolatu dute urriaren 25erako.

Bihurri ludotekak 'Yoga Familiar' izeneko ekimena iragarri du. Saioak bi asteetan behin egingo dituzte ludotekan bertan, eta ordubeteko iraupena izango dute. Aitziber Aranguren ek gidatuko du taldea.

Haurrentzat bideratutako yoga saioak izan arren, familiako gainontzeko kideek ere parte hartu dezakete, eta horrela familia guztiek gozatze-ko aukera eduki dezake. Familiako kide guztientzat es-

perientzia aberasgarria izan daitekeela gehitu dute. Saioetako dinamikari dagokionez, lasaia izango da eta jolasak eta mugimenduak uztartuko dituzte.

Interesa duenak Bihurri ludotekako helbide elektronikora, bihurriludoteka@gmail.com helbidera, idatzi beharko du, urriaren 10a baino lehen.

Izena ematen dutenek erabakiko dute klaseen formatua

nola izango den eta egutegia zein izango den.

0-8 urte bitarteko haurren txokoa

Bihurri ludoteka modu autogestionatuan antolatzen da, eta "txikientzako aterpea" bezala aurkezten dute haien burua. Bazkidetza bidez funtzionatzen dute, eta 0-8 urte bitarteko haurrei bideratuta dago.

Mahai-jokoak, eskulanetarako materiala, psikomotrizi-

tatea lantzeko materiala, irakurtzeko materiala, mozo-erroak... eskaintzen dituen espazioa da ludoteka. Horrez gain, saio bereziak ere eskaintzen dituzte, aipatutako yoga saioak edo "lehen sorospenak haurtzaroan" bezalako saioak, besteak beste.

Lokala udaletxearena da eta goizeko 8:00etatik gaueko 21:00ak bitarte erabili daiteke urteko 365 egunetan. Horretarako, Bihurriko bazkide egin behar da, eta urteko 10 euroko kuota ordaindu behar da, eta sarrera 30 euro dira. Kuotak familiako ordaintzen dira, ez haur bakoitzeko; hau da, nahiz eta bi haur eraman kuota bakarra ordaintzen da. Erabiltzeaz gain, astebururo familia bati egokitzen zaio lokala garbitzea, eta urtero zozketa egiten da zuzendari-tzako kideak aldatzeko.

Ate irekien eguna

Bihurri Ludotekak ate irekien eguna antolatu du urriaren 25 larunbata, erabiltzaile berriak erakartzeko intentzioarekin. Ludoteka goizeko 10:00etatik 12:00etara egongo da zabalik informazio bila gerturatzen den edozeini harrera egiteko eta, aldi berean, ludoteka bera eta bertan dituzten jokoak ikusteko aukera egongo da.

LOKALA UDALARENA DA ETA 8:00ETATIK 21:00AK BITARTE ERABILI DAITEKE URTEKO 365 EGUNETAN

 943 361 182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL


JUANTXO BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8, USURBIL
943 37 00 08


Otar-Goxo
Elizagaia
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

Zuen iragarkia hemen
 publicitate@noaua.es
 747-486-835

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilen alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil. 618 773 004.

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 688 653 441.

Usurbilen (erdigune edo auzoetan) alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil. Pertsona bakarra naiz eta ez daukat animaliarik. Diru sarrera finkoak ditut. 630089127

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. Harremanetarako: 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA/IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

moduan edo orduka lan egiteko dispo-
nibilitatea. 631654743

Orduka eta egunez, adineko per-
tsonak zaintzeko edo garbiketa
lanak egiteko eskaintzen dut nire
burua. 747446091.

BESTELAKOAK

Batxilergo 2. maila egingo duen
ikasle bati matematika eta fisikako
klase partikularrak emateko norbai-
ten bila gabiltza. 657714355

Frantses irakasle baten bila ari gara,
DBH4ko ikasle batentzat. 615758476.

Haurren aisialdirako hezitzailea
naiz, eta esperientzia dut. Irailean
prest ume zaintzarako edo esko-
lako lan errefortzurako: 688896135

Klase partikularrak emateko per-
tsona baten bila nabil. DBH3ko
ikasle bati, astean 3 egunez. Ikas-
turte osoko konpromisoa:
647742588

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian asteburue-
tarako zerbitzari bila gabiltza: 943
37 06 68 / info@aginagahotela.com

Andatza taberna sukaldari laguntzai-
le bila dabil. 627841927.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Pertsona helduan zaintzeko lan bila
nabil. Zaintzaile titulazioa dut eta es-
perientzia handia. Interna moduan edo

orduka lan egiteko disponibilitatea.
618814363 (Marta)

Lan bila nabil. Eskaintzaren baten be-
rri baduzu, deitu: 668 57 85 52 / an-
quitara@gmail.com

Garbiketa lanak edo ume zein helduen
zaintza lanetan aritzeko lan bila nabil.
Erreferentzia onak daukat. Goizetan
16:00ak arte lan egiteko aukera.
604302785

Garbiketa lanak edo pertsona helduen
zaintzan lan egiteko lan bila nabil.
Zaintzaile titulua daukat eta interno

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Emakumeen Etxea	943 371 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

Eskubaloia Oiardon

Urriak 11, larunbata:

- 13:00 Kadete mutilak:
- Usurbil KE- Zarazpe Pulpo EK
- 16:00 Kadete neskek:
- Bilagun-Usurbil KE-Arrasate
- 17:30 Jubenil neskek:
- Usurbil KE
- Egia Natxo taberna

Urriak 12, igandea:

- 11:45 Senior neskek:
- Urbil-Usurbil KE
- Egia Taupada taberna

Pilota partidak

Urriak 10 ostirala

18:00 Usurbilgo frontoian:

- Kadeteak eskuz binaka 2. Mailan:
- Pagazpe (Alejo-Alejo)-Lapke
- Jubenilak eskuz binaka 2. Mailan:
- Pagazpe (Aburuza-Alejo)-Hernani

62. Enrique Abril Errebote Txapelketa

Urriak 12, igandea

10:30 Zubietako errebote plazan:

- Kanboarrak
- Zubieta 1

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus
helbidera, eta idatzi: izen-abizenak,
urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz
deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako
zorion-agurrak bakarrik iragarriko
ditugu.

Asteleheneko 17:00ak
arte jasotako zorion
agurrak bakarrik
iragarriko ditugu.

Hortik aurrera
jasotakoak hurrengo
astean argitaratuko
ditugu.

HILDAKOAK



Maria Caridad

Ugalde Iztueta

Urriaren 4an hil zen,
82 urterekin.

HILDAKOEN BERRI EMATEKO:

943 360 321 edo erredakzioa@noaua.eus

- Asteleheneko 17:00ak arte jasotakoak emango ditugu argitara.
- Gainontzekoak, hurrengo asteko astekarian.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 10

AGINAGA Ume eta Gazteen Eguna

10:00 Umeen jolasen hasiera.
13:00 Umeen bazkaria.
16:00 Puzgarriak...
Egitarau osoa, 11. orrialdean.

LARUNBATA 11

AGINAGA Gaupasa Eguna

12:00 Herri kirol erakustaldia.
18:00 Txosna irekiera.
19:00 Arranopola txaranga.
00:00 Kontzertuak frontoian:
Mirua, Trikidantz.
03:00 Eliza Zaharrean: Dj
Jotatxo.
08:00 Errefus bilketa.
Egitarau osoa, 11. orrialdean.

IGANDEA 12

SANTUENEA "Heriotzaren pedagogia" bizipen tailerra

Heriotzaren gaia errespetuzko giroan elkarbanatzeko aukera.
Bideratzailea: Manex Beristain.
11:00-13:00, Santuenea 12n.

USURBIL Euskarazko film berrienak NOAUA! K.E.-ren eskutik: 'Jone, Batzuetan'

Sarrerak: aldeztatik salgai 6 eurotan, usurbilkultura.eus plataforman. NOAUA!ko bazkideek 4 eurotan, soilik NOAUA!ko egoitzan.
18:00 Sutejin.



Filmerako sarrerak usurbilkultura.eus web orrian eskura daitezke.

'Jone, batzuetan' filma, igandean Sutejin ikusgai

"Sara Fantova (Bilbo, 1993) zuzendariaren lehen filma ez da oharkabea pasa. Sari ugari jaso ditu eta Zinemaldian, Zinemira sailean izan zen lehian. Igande honetan, Sutejin ikus ahal izango dugu.

Igande honetan, 18:00etan

- Sinopsia: Jone gazteak lehen maitasuna bizi du, eta, aldi berean, aitaren parkinsonaren ondorioak bizkortu egiten dira ustekabea. Bilboko Aste Nagusian, Olgarekin igarotzen

duen hilezkortasun-sentsazioaren eta aitak bere gaixotasuna zeharkatzeko duen modu bereziaren arbuioaren artean biziko da Jone. Gertaera horiek direla eta, Jonek uda horretan jakingo du nekato hori izaten hasiko den heldu bihurtzen ari dela.

- Sarrerak: aldeztatik salgai 6 eurotan usurbilkultura.eus plataforman. Bazkideek 4 eurotan NOAUA!ko egoitzan. Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkartea.

Guraso bilera Gaztelekuan

Ikasturte hasierako bilera antolatu dute urriaren 15ean, arratsaldeko 17:00etan Gaztelekuan bertan. Ordutegi honetan zabaltzen dute: astelehen eta ostegunetan, 16:30-19:30 artean eta larunbatetan, 16:00-19:00 artean. Informazio gehiago, bideotatik jaso dezakezue: Gaztelekuan bertan (San Inazio, 3), gaztelekuausurbil@gmail.com helbidean edo 688 713 838 telefono zenbakian.

Gure Pakeatik Galiziara

Usurbilgo jubilatuen elkarteak bost eguneko bidaia antolatu du urriko bigarren hamabostaldian Galiziako Ribadeora; urriaren 20tik 25era. Bertara joan nahi dutenek Gure Pakea elkarteak Artzabalen duen bulegora jo dezatela, astelehenetik ostiralera, 10:00-12:00 artean, edo bestela, dei dezatela 943 368 770 telefono zenbakira.

Ana Goitiaren bakarrizketa saioa

Zubieta Lantzen bilgunearen eskutik, urriaren 18an arratsaldeko 19:00etan Zubietako Elizan. Sarrerak usurbilkultura.eus plataforma bidez eskuratu daitezke. "Normalean konturatzen ez garen gauzetan jarriko du arreta bakarrizketa honetan... egungo musika eta marketina, "sold out"aren moda, matxismoa, lodifobia eta egunerokotasuneko gaiak...".

Kima

MASAJE LEKUA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

·KIROL MASAJEA
·MASAJE
TERAPEUTIKOA
·KOLONAREN
HIDROTERAPIA

ARTZABAL

BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

**Bertso-ibilaldia Usurbilgo sagar eta
sagardoaren kultura eta paisaian barrena**

URRIAK 19, IGANDEA

Ugarte baserriaren atarian, 10:00etan

Tartean Egiluzeaundi baserriko dolarean bertso saioa

Izen ematea: www.650usurbilbizi.eus web orrian



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserriaren Kooperatiba

Hizketako gaiaren gidaria

Jakoba Errekondo

Bertsolariak

Maialen Lujanbio

Andoni Egaña



Usurbilgo Udala



USURBIL
SAGARDOAREN
UNIBERTSITATEA

Sagaria eta
Sagardoaren
Kultura eta
Sustentazioa
**BIZI
SAGARDOA**



Sagardoaren
Unibertsitatea

Alkartasuna Kooperatiba Atallu industrialdea 26, Usurbil 943 361 114 www.alkartasuna.eus alkartasuna@usurbil.com

**Zuen
iragarkia hemen**



publizitatea@noaua.eus



747-486-835

OFIZIOEN GIDA

maiz
hornigalak

•TRESNERIA ETA ERREMINTAK
•EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

•ERAIKUNTZAK •OBRAK
•BERRITZE LANAK

ARANKA
BERRIKUNTZAK

•Fatxaden estaldurak •Estalkien berriztatzeak
•Barruko berrikuntzak •Gremioen koordinaketa
•Igeltseritza orokorra

Tel.: 606 37 21 05 info@arankaberrikuntzak.com USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Hipodromo kalea 10, LASARTE

Tel.: 693 05 93 92 uraitz@uraitz.com

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L.

•FATXADAK ETA TEILATUAK
•ERAIKUNTZAK •BARRUKO BERRIKUNTZAK
•URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA

Antonio
URRUZOLA
AROSZTEGIA

687 845 599 - 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

USURBIL
J. R. IBARGOEN S.L.

ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jribargoien@hotmail.com
943 36 14 48 - 676 45 31 76

ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

antenas
Telemar

629 121 355

Elkano kalea 13, HERNANI

APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL

ANORGA TXIKI S.L.
KRISTALDEGIA

•komertzial instalazioak
•beira bikoitza •segurtasun beirak
•dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

Iñaki
Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
Tfnoa.: 600 024 825

zuri
arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarraiturgintza@gmail.com

